

# ELKARTEAK

---

Enpresen arteko aliantzak ezinbestekoak dira hauen hobekuntzan, beraien zerbitzu edo produktuen arrakastan parte handia jokatzeko baitute. Berdin du bi enpresa aliatuak edo lehiakide diren, komunean helburu bat badute, elkarrekin kolaboratuko dute. Gure enpresa ez da gutxiago izango, beste egitasmoen antzera, irizpide bera jarraituko du.



Lehen harremana Donostiako Udalarekin izango litzateke; izan ere, gure zerbitzuaren sorrera han izango da eta hark sustatuko du gure proiektuari hasiera ematea. Harekin aliantzak egiteak, diru laguntzak eta beharrezko baliabideak (adibidez, kale-argiak, gure aterki-puntuak ezartzeko) eskuratzen lagunduko digu, izan ere gure zerbitzuak bertako herritarren onura bilatzen du, eta hori positiboa da udaletxearentzat. Hau lortzeko, bankuari mailegua eskatzea ezinbesteko izango dugu.

Bestalde, gure proiektua aurrera eramateko, eta oinarrizkoa duguna lortu ahal izateko, aterki-hornitzaile bat beharko genuke, bere prezio eta kalitatearengatik, GiftCampaign enpresa hautatu dugu. Honekin, harreman sendo bat landuko da, izan ere, gure aliantza garrantzitsuenetakoa baita. Kolaborazio hau erosle eta hornitzaile artekoa da, materialen eskuragarritasuna bermatzeko soilik izango da.

Gure zerbitzuak funtziona dezan aplikazio berri bat sortu eta diseinatu behar dugu. Hau aurrera eraman ahal izateko, gutako batzuk informatikaren inguruko klaseak jaso ditugunez, oinarrizko ezagutzak ditugu; hala ere, Lukenen osabaren laguntza beharko dugu. Izan ere, dohain lagunduko digu. Horrez gain, webgune bat jarriko dugu abian eta informatikariaren laguntza beharko dugu honen garapenerako, errendimendurako eta segurtasuna bermatzeko.

Aterki-puntuen estruktura nola egin finkatzeko ingeniari batekin aliatu beharko ginatke, Eleneren aitarekin ain zuzen, izan ere musu truk egingo luke. Bere ezagutzarekin, estruktura sendo eta funtzionala sortzea lortuko da, halaber, guk jada badugu ideia nagusi bat estrukturaren itxurarekiko, baina guk ingeniaritzari buruz ditugun ezagutzak deusezak dira. Horrez gain, estruktura egiteko material egokiena aukeratzeko laguntza eskatuko diogu, izan ere, material hauskaitza eta iraunkorra izan behar du eta ez dakigu zehazki zein den aproposena. Hala ere, altzairu herdoilgaitzko estrukturak egitea pentsatu dugu, eta logikoa denez material hau lortzeko hornitzaile baten beharra izango dugu, horretarako Castinox enpresarekin aliatuko gara.

Gure ideiarekin bizia emateko, muntaketa lantegi baten laguntza beharko genuke. Honek estrukturak muntatuko lituzke, dena finkatuta utziz. Anneren osabak "Sanse" muntaketa lantegian egiten du lan, eta prest dago guri laguntzeko, ez dizkigu dohainik egingo estruktura guztiak baina deskonturen bat egingo digulakoan gaude.

Honen ondoren, elektrikari batzuek, Lukenen anai eta aitaren enpresak ain zuzen, estrukturak kale-argietan instalatuko dituzte, eta bere mantenimenduz arduratuko dira, mantenimendua ikasi baitute. Gure kabuz egitea ezinezkoa egiten zaigu eta, ezagutza nahikoa ez dugularik.

Proiektuaren xedea, etekin propioak ateratzeaz gain, Donostiako denda lokalen sustapena eragitea da, beraz, dendetako jabeekin aliantza estua egin beharko dugu. Horretarako sshops (San Sebastian shops) elkartearekin kontaktuan jarriko gara, honek hiriko merkataritzaren plataforma da eta Donostian dauden merkataritza elkarte gehienak barneratzen ditu. Elkarte honek eta gure enpresak hainbat helburu partekatzen ditu, hain zuzen ere, hiriko merkataritza bultzatzea, indartzea, sendotzea eta laguntzea, Donostiako merkataritza jomuga delarik. Honi esker dendek gu publizitate metodo seguru bat bezala ikustea lortu nahi dugu, gure proiektuan parte hartzeko. Haien denden izena eta helbidea gure aterkietan azalduko da, horrela, publizitatea egingo diegu, aipatutako hau, diseinu grafikoak egiten dituen Donostia bertako "375 Estudio" enpresa lokalarekin aliatuz lortuko genuke, guk gure kabuz eginez gero, aterkiak izorratzeko arriskua edukiko baitugu.

